

Plaza » Bizia

Javier Mina ◉ Idazlea

Literaturan itsuek izan duten trataera aztertu du Javier Mina idazleak 'La mirada fósil' izeneko saiakera liburuan, bibliatik hasi eta gaur egunera arte.

«Era negatiboan ageri dira itsuak gehienetan literaturan»

Iñigo Astiz Iruñea

Itsutasunari eman dio begiratua oraingoan Javier Mina idazleak (Iruñea, 1950). Literaturan maiz ageri dira pertsonaia itsuak, eta idazleek eman dieten trataeraz egin du gogoeta *La mirada fósil* (fosilizaturiko begirada) izeneko saiakera liburuan (Tabula Rasa Ediciones). Bibliatik hasita egin du bilketa lana, eta idazle garaikideen lanak ere aztertu ditu. Dioenez, sinbolikoa da batzuetan itsutasuna lantzeko idazleek hartzen duten bidea, errealagoa besteean, baina batzuek eta besteek eraikitako itsuaren irudiari begiratuta, balantzea ezin da oso positiboa izan. Gaizki ikusita egon da itsutasuna mendeak joan eta mendeak etorri. Bekatu egin izanaren zigor zen Erdi Aroan, eta eskubide galeraren alegoria literatura garaikidean.

Botere harremanak ikertzen ari zirela heldu zinen itsutasunaren gaira. Nola izan zen?

Literaturan botereak izan duen isla interesatzen zitzaidan. Nola erretratatu duten idazleek gehiegizko botere hori. Berehalakoa hartu nintzen bazegoela, alde batetik, tiranoaren irudi bat, eta, beste alde batetik, agintari totalitarioaren irudi bat. Begiradaren loturiko metafora asko erabiltzen zirela ere ohartu nintzen; urkoaren minaren aurrean itsu egotea, beste alde batera begiratzeara... Hala, pixkanaka-pixkanaka hasi nintzen sartzen itsutasunaren aferan. Maiz, boterearekin baino gehiago, ordea, eskubideen galerarekin lotuta agertzen da itsutasuna, babesgabatasunarekin...

Itsutasun sinbolikoa da, beraz, gehienbat, zure liburuarengaita.

Bai, hasiera batean hala izan behar zuen, behintzat. Baina, bestalde, ezin da itsutasun erreala bazterrean utzi. Horregatik, kontakizun zientifikoak ere sartu ditut azkenean liburuan, itsu egotea nolako den azaltzen duten

testuak, pertsonaia itsuak dituzten kontakizunak...

Bibliatik hasi duzu bilaketa.


Mendealdeko mundua du ardatz nire liburua. Iturri judu-kristaua izan da hemen oinarriko iturrietariko bat, eta greziar eta latindar tradizio klasikoak da besteak. Bi tradizio horiek hartzen ditut kontuan nire liburuan. Pertsonaia itsuak hartzen dituzten kontakizunak ere bai, baita itsutasunari buruzko zientzia tratatu batzuk ere. Espainiako itsutasunaren historia moduko bat egin dut azken atalean.

Eta nola ageri da itsutasuna literaturara horretan guztian?

Nahiko era negatiboan ageri dira itsuak, era negatiboan deskribatzen da itsutasuna literaturan gehienetan. Salbuespenak ez dira asko. Biblian, Genesian esaterako, lehenik iluntasuna dago, eta gero argia sortzen da. Argiak zu-

«Artisauen pare itsuek ere beren gremioa sortu zuten Erdi Aroan, limosna eskatzeko»

zendu beharreko akats gisa irudikatzen dute iluntasuna. Itsua pertsona inperfektua da Biblian, eta, horregatik, ezin da apaiz izan. Jainkoaren bitartekari ezin da izan pertsona inperfektu bat. Areago, hain iruditzen zitzaizkien ezberhar handia, ezen jainkoaren zigor gisa baino ezin zuten ulertu. Ebanjelioetan ere indarrean da oraindik ideia hori. Jesusek itsu bat sendatzen duenean, adibidez, apostoluek bekaturik nork egin ote duen galdetzen diote elkarri, itsuak berak egin ote duen, edo haren aitak. Bestelako kontakizunak ere badira, pertsonaia itsuak halako karga negatiborik gabe aurkezten dituztenak, baina inoiz gutxi ageri dira era positibo batean, halere. Itsutasunaren tratamendu sinbolikoa egiten denean ere, arazo handia duen norbait izaten da itsua.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Orakuluak datozkit gogora, mundu klasikoan. Itsu izan arren, ikusi ez arren, beste pertsonen baino gehiagokusteko ahalmena zuten haiek.

Greziar ere kondena gisa ulertzen zuten itsutasuna. Arazo larria zen. Itsu izatera zigortzen zuten jendea jainkoek. Konpentsazioa ere jasotzen zuten, halere: etorkizuna ikusteko ahalmena, esaterako, edo gizakiak sakonago ikusteko ahalmena. Hortik poetak, musikariak...

Kristautasuna hedatu ahala, ildo horietan engegozen.

Bai. Bi alorretan landu da gerora itsutasunaren ideia. Askok hedatu da, adibidez, mirakuluen inguruko literatura, eta itsuei buruzkoak dira haietariko batzuk. Bestetik, XI. eta XII. mendeetako Frantziako literaturan pertsonaia komikoa bilakatu da itsua. Burla egiteko erabili izan dute. Erdi Aroan, egia da, artisauak egin bezala, itsuek ere beren gremioa sortu zuten. Haiek zuten, nolabait esatearren, limosna eskatzeko eskubidea. Beste kolektibo batzuek ez zuten halako indarrik. Beste askok ez bezala, itsuek ezin zuten beren itsutasuna simulatu. Jendeak, itsuak ikusi, eta bazekien itsuak zirela eta ez zirela tranpetan ari. Horregatik guztiagatik, bazegoen itsuekiko inbidia moduko bat, eta hortik hel daitezke bur-lak horiek.

Sortzaille itsu mordoak izan da historian. Blues abeslariak hamaka.

Erdi Arotik dator hori ere. Limosna eskatzen zuten orduan, baina beti eskaintzen zuten zerbait trukean; errezoak edo kantuak. Baziren koblakari itsuak ere, eta fama lortu zuten haietariko batzuek beren konposizioekin.

Artean itsuek izan duten irudia ere aztertu duzu liburuan.

«Ukimenaren alegoria gisa margotu dituzte artistek itsuak beren koadroetan»

Gutxi gorabehera eskema bera erabili dut hori aztertzeko ere. Pertsonaia itsuek izan duten presentzia eta trataeran jarri dut arreta. Brueghel margolariaren lan bat nabarmenduko nuke, esaterako; *Itsuen parabola* izenekoak. Irudi horretan itsu bat ageri da soka baten bidez beste itsu batzuek gidatzen. Badaude izen-abizenak dituzten itsuak ere, ordea. Santa Luzia, adibidez, maiz irudikatzen dute itsu gisa, historikoki, dirudienez, begiak sekula kendu ez bazizkioten ere. Ukimenaren alegoriatzat ere erabili dituzte pintoreek itsuak beren koadroetan, baita estasi mistikoa edo inspirazioa irudikatzeko ere.

Maia sinbolikoa, eskubideen galerari irudikatzen ere erabili dute idazleek itsutasuna. Jose Saramagoren lana izan daiteke adibiderik argiena, ezta?

Hala da, bai. *Itsutasunari buruzko saiakera* liburua egiten dudan irakurketa ere badator liburuan. Nire ustez, esperimentu bat da Saramagoren liburu horretan egiten duena. Egungo gizartean jendea itsu geldituko balitz zer pasatuko litzatekeen aztertzen du. Itsuak kontzentrazio esparruetan giltzapetzen ditu gizarteak bere burua gaitz kutsakor horretaz babesteko. Pertsona bat dago ikusmenari eusten diona, eta lagundu egiten ditu gainontzekoak. Alegoria bat da pertsonaia hori; altruismoarena. Haren bidez egongo da gizarte mota berri bat eraikitzeko aukera. Orduan eteten da Saramagoren esperimentua, eta ikusmena berreskuratzen dute denek. Idazlearen ideia marxistak daude proposamen horren atzean.

Aurrekariak ere badira, diozunez.

Kadarek badu liburu bat Saramagorenaren gisako planteamendurekin. *Itsutasunaren sinatzaila* izena du lan horrek, eta Albanian idatzi zuen, oraindik ere gobernu totalitario baten pean zegoen herrialde batean. Jendea ez da gaixotasun baten ondorioz itsu gelditzen, begiko baten erruz bai zik. Ez dakite nondik datorren begiko hori, eta badaezpada jendea atxilotu eta giltzapetzea erabakitzen dute. Oso liburu ona da, eta oso ongi tratatzen du itsutasunaren alde sinboliko hori. Parekatu egiten ditu bista gaitzea eta eskubideak gaitzea, era sinbolikoa.